

Arabako 69 herrik badute dagoeneko banda zabala, Araba Konektada-ri esker

“2019. urtearen amaierarako, Arabako biztanlegune guztiek banda zabalerako sarbidea izango dute; lehen lurraldea izango gara Estatuan, eta lehenengotakoa European”, adierazi du diputatu nagusiak

Gasteiz, 2018ko urriaren 1a. Araban, guztira 69 herrigunek badute dagoeneko banda zabalerako sarbidea, Araba Konektada programari esker. Horixe iragarri du Ramiro González Arabako diputatu nagusiak gaur goizean, Maeztun, herrigune horietako zenbaitetan izan baita, Pilar García de Salazar diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka saileko diputatuarekin batera. “2019. urtearen amaierarako, Arabako biztanledun lurralde osoak, biztanlegune guztiek, banda zabalerako sarbidea izango dute eta, horri esker, biztanledun azalera osoa estalita duen lehen lurraldea izango gara Estatuan eta Europako zati handi batean”, azaldu du foru agintari gorenak.

Hedatze hori era koordinatuan egiten ari da, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak abian jarritako programen bitartez, eta bi teknologia desberdin ditu oinarri: FTTH eta LTE (4G). FTTH teknologia sarbide sare finkoa da, zuntz optiko izenez ezagunagoa, eta horren bidez, 100 eta 600 megabyte arteko abiadura eskainiko da, zeina giga batera ere iritsi ahal izango baita kasu jakin batzuetan. Instalatzen ari diren beste teknologia LTE deritzona da; antena batek (irradi maiztasuna) igorritako seinalearen bidez iristen da etxetara, mugikorren antzera, eta gutxienez 30 megabyteko abiadurako konexioa eskainiko du.

“Azpiegitura hedatzeko fasean sartuta gaude. Herri batzuetan, dagoeneko jarrita dituzte lehenengo bertikalak, eta zenbait etxetan badute dagoeneko kablea; hala ere, hedatzea aurreratuago dago LTE teknologian, ez delako behar azpiegitura handirik”, adierazi du Gonzalezek. Abuztura bitartean, 10 herrigunetara iritsi zen FTTH teknologia, zeinei Maeztu batu baitzaie berriki, eta 58 biztanlegunetan zuten LTE bidezko abiadura handiko Internet. “Gainera, LTE teknologiak telefono estaldura handiagoa izatea ahalbidetzen digu. Antena bakoitzak datuak emateko potentzia handitu du, baina ez hori bakarrik: ahotserako ere bai. Orain, mendietako

zona batzuetan telefono estaldura dago, eta horrek garrantzi handia du, esate baterako, larrialdietan”.

Nolanahi ere, lurraldean ez da modu homogeneoan hedatu, Arabako hainbat gunetan aldi berean ari delako aurrera egiten Telefónica, hedatze lana gauzatzeko lehiaketa publikoa irabazi zuen enpresa. Aurreikuspenen arabera, hilabete honetan bertan 23 herrigunetara iritsiko da zuntz optikoa, eta LTE teknologiaren bidez zerbitzu hori jasoko duten 114 herritatik 79k izango dute urte amaierarako.

“Ezinbestekoa da jada teknologia hori izatea”, adierazi du Arraia-Maetzuko alkate Anartz Gorrotxategik. Berak izan du ardura bere herriko zuntzaren instalazio puntuak erakusteko: “Enpresek abiadura handiko Internet eskatzen zuten eremu honetan jarraitzeko, eta uste dugu hau bultzada izan daitekeela eskualdeko gazteentzat bertan lekukotu eta ekiteko, hirira joateko tentaziorik eduki gabe”.

Kontratazio prezio berbera

Aurrerantzean, udalek eta kuadrillek hartu beharko dute txanda: toki erakundeei zerbitzu hori kontratatzeko aukeraren berri ematen hasi beharko dute, haietako bakoitzera iritsi ahala. “Are gehiago: akordio bat eginda daukagu, zuntz optikoak prezio berbera izan dezan lurraldeko edozein tokitan, izan Gasteizen, izan herririk ezkutuenean”, erantsi du diputatu nagusiak.